# CÓMO ACTUAR ANTE PIOJOS Y LIENDRES

Los **piojos** de la cabeza son unos pequeños insectos, sin alas, que necesitan sangre humana para sobrevivir. No resisten fuera del cuerpo humano más de dos días.



Las **liendres** o huevos del piojo tienen forma de gotita de agua, y están unidas fuertemente a la base del pelo.



Los piojos no vuelan, tampoco saltan, pero se mueven rápidamente por el cabello seco, pasando de una persona a otra por contacto cercano entre cabezas, o al compartir objetos personales (toallas, gorros, peines, …)

## QUE HACER EN CASO DE …

### SOSPECHA

1. Revise el pelo, sobre todo la parte de la nuca y detrás de las orejas, en busca de piojos vivos y liendres pegadas al pelo. Las liendres son mas fáciles de ver que los piojos.
2. Desenrede el pelo húmedo y divídalo en mechones.
3. Peine cada mechón desde la raíz hasta la punta con una **lendrera** (peine especial con púas largas y separación estrecha entre ellas, preferiblemente de metal por su rigidez). **El peinado se debe realizar con el pelo mojado porque así el piojo se mueve menos.**
4. Después de cada pasada examine el peine al trasluz, para comprobar la presencia de piojos o liendres. Para un peinado adecuado, necesitará de 15 a 30 minutos.
5. Realice periódicamente esta operación como medida preventiva.

### PRESENCIA

1. En caso de detectar liendres o piojos vivos, aplique tratamiento con un producto pediculicida (antipiojos), siguiendo siempre las instrucciones del prospecto (las lociones son más eficaces que los champús).
2. Transcurrido el tiempo de aplicación, lave el pelo con su champú habitual y aclare.
3. Peine el pelo húmedo con lendrera de forma meticulosa para eliminar piojos y liendres.
4. Siga peinando con lendrera a días alternos **hasta que ya no se observen liendres.**
5. Conviene realizar una segunda aplicación del producto al cabo de 7 a 10 días.

**La presencia de piojos no es signo de mala higiene.**

**Revisar el pelo de todas las personas de la familia y aplicar tratamiento sólo en caso necesario.**

**Avisar también al centro educativo y a posibles contactos. Nunca se deben aplicar productos antipiojos para evitar el contagio.**

11/2009

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD

# ZER EGIN ZORRIAK EDO BARTZAK DAUDENEAN

Buruko zorriak intsektu txiki batzuk dira, heaorik gabeak, bizirauteko pertsonen odola behar dutenak. Ez dute giza gorputzetik kanpo bi egunetik gora irauten.



Bartzek, hau da zorrien arrautzek, ur tanta itxura dute, ilearen sustraietan atxikitzen dira, eta ez dira erraz askatzen.



Zorriek ez dute hegaz egiten, saltorik ere ez, baina azkar mugitzen dira ile lehorrean. Pertsona baten burutik bestearenera kontaktuaren bidez pasatzen dira, eta objetu pertsonalak partekatzean (toailak, txanoak, orraziak, ...)

## ZER EGIN ONDORENGO KASUETAN ...

### SUSMOA

1. Ilea aztertu, batez ere garondoa eta belarri ostea, ea ileari itsatsitako bartzik edo zorri bizirik dagoen ikusteko. Bartzak zorriak baino errazago ikusten dira.
2. Ile hezea askatu eta xerloetan banatu.
3. Xerlo bakoitza orraztu sustraietatik puntaraino **orrazi-xehe** bat erabiliz (hagin luze eta tarte estudun orrazi berezia, ahal dela metalezkoa, zurruntasunagatik) **Ilea busti dagoela orraztu, zorriak gutxiago mugitzen dira-eta.**
4. Orrazia pasatzen den bakoitzean begiratu argitara, zorririk edo bartzik dagoen ikusteko. Ganoraz orrazteko 15-30 minutu beharko dira.
5. Prebentzio-neurri moduan aipatutakoa aldian-aldian egin.

### AGERPENA

1. Bartz edo zorri biziak ikusiz gero, zorrien kontrako produktu pedikulizida bat erabili, betiere prospektuko argibideak jarraituz (lozioak xanpuak baino eraginkorragoak dira).
2. Aplikazio denbora igaro ondoren, garbitu ilea ohiko xanpuarekin eta uretan aklaratu.
3. Ile umela orrazi-xehearekin zehatz-mehatz orraztu, zorriak eta bartzak ezabatzeko.
4. Jarraitu orrazi-xeheaz orrazten txandakako egunetan **harik eta bartzak desagertu arte.**
5. Komenigarria da 2. aplikazio bat ematea, 7-10 egun igaro ondoren.

**Zorriak izatea ez da higiene txarraren seinale.**

**Familiako partaide guztien ilea aztertu. Tratamendua, beharrezko denean baino ez aplikatu.**

**Jakinarazi ikastetxekoei eta hurbilekoei.**

**Ez erabili inoiz zorrien kontrako produkturik kutsatzea saihesteko.**

2009/11

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD